



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA



JUAN JOXE AGIRREREN OROIMENEZ ARGAZKI LEHIAKETA

AURKEZPENA: Duela gutxi hil zen Azpeitiko Argazki Elkarteko kide eta lagun zen Juan Joxe Agirreren omenez, Lagun Onak M.B. batera, argazki-lehiaketa hau antolatu dugu, udazken-mendiko argazki-rally klasikoaren ordean.

Juan Joxe naturaren eta, bereziki, zuhaitzen inguruko guztiaren maitale eta defendatzaile zintzoa zen.

OINARRIAK

1. Gaia: ZUHAITZA (basoa, adarrak, sustraiak, xehetasunak, etab.)

2. Lehiakideak: argazkigintzako zale eta profesional guztiek har dezakete parte.

3. Lanak: egile bakoitzak gehienez ere **HIRU** argazki aurkeztu ahal izango ditu, jpg formatu digitalean, 72 p.p.p.ko erresoluzioarekin eta alderik handienez gehienez 1.500 pixel dituztenak.

4. Bidalketak: Argazki artxiboak posta elektronikoz helbide honetara bidaliko dira, izena eta telefono zenbakia adieraziz: argazkiakae@gmail.com

5. Lanen jabetza eta ustiapena: Saritutako argazkiak antolatzaileen jabetzakoak izango dira, eta argazki horiek argitaratu, zabaldu eta erabiltzeko eskubidea izango dute, irabazi asmorik gabe, betiere egilearen izena adierazita.

6. Sariak:

1^a ARGAZKI ONENA 180€ eta Garaikurra

2^a ARGAZKI ONENA 150€ eta Diploma

3^a ARGAZKI ONENA 120€ eta Diploma

HERRIKO SAILAPENIK ONENA 100€ eta Diploma

Egileek ezin izango dute sari bat baino gehiago eskuratu.

7. Egutegia: Deialdi honen datatik aurrera zabalik dago argazkiak bidaltzeko epea. Argazkiak jasotzeko azken eguna, **2020ko azaroaren 15a**

Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa Azpeitiko Argazki Elkartearen eta Lagun Onak M.B. web orrien bidez eta irabazleei zuzenean jakinaraziko da.

8. Oinarrien interpretazioa: antolaketak ahalmena izanen du oinarrietan aurreikusitako gabeko edozein gorabehera konpontzeko. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek osorik onartzea.

Azpeitian, 2020ko urriaren 10ean